


Tiroa kontzertuaren erdian
Eleberrietan politikaz aritzeari buruz





Belen Gopegui | (Madril, 1963), espainiar eleberrigile eta gidoilaria. 1993an, *La escala de los mapas* bere lehen liburuarekin, Tigre Juan eta Santiago del Nuevo Extremo sariak irabazi zituen. Geroztik, ez dio argitaratzeari utzi eta Espainiako idazlerik handien artean kokatu dute kritikak zein irakurleek. Bere obren artean nabarmentzekoak dira *Tocarnos la cara*, *Lo real*, *El lado frío de la almohada*, *El padre de Blancanieves*, *Deseo de ser punk* eta *La conquista del aire*. 2000. urtean, azken liburu hori zinemarako egokitu, eta *Las razones de mis amigos* filma egin zuten.

Belen Gopegui

Tiroa kontzertuaren erdian

Eleberrietan
politikaz aritzeari buruz

Hitzaurrea

Eider Rodriguez



LEHEN EDIZIOA

Un pistoletazo en medio de un concierto. Acerca de escribir de política en una novela. Editorial Complutense, Madril, 2008

TXALAPARTAREN LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2011ko maiatza

- © Txalapartak EDIZIO HONENA
- © Belen Gopeguik OBRARENA
- © Ainhoa Caballerok
ITZULPENARENA
- © Eider Rodriguezek
HITZAURREARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.

San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
RGM
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN
978-84-8136-616-7
LEGE GORDAILUA
Bl. 1.353-11



HITZAURREA

Bazterrak

IDAZTEN DUEN EMAKUME BATEK *emakume literatura* egiten du, idazten duen beltz batek *beltz literatura*, idazten duen homosexual batek *gay literatura* eta idazten duen ezkertiar batek *literatura politikoa*. Izan ere, idazten dutenak, *stablishmentaren* edozein sofatan kabitzen diren gizonezko zuri heterosexualen ipurdiak dira. Emakumeek emakume izatera dedikatu beharko lukete, beltzek beltz izatera, homosexualek homosexual izatera eta ezkertiarrek militante izatera. Munduak bitan partitua behar du aurrera jarraitzeko, desorekek ematen diote oreka: garaileak eta garaituak, gizonezkoak eta emakumezkoak, zuriak eta beltzak, eta bai, denok dakigu hori ez dela bidezkoa, eta gure kontzientziak baretzeko eta gauzak zeu-

den bezala iraunarazteko trikimailu bat baino gehiago asmatu izan dugu.

Beti sortzen da oreka kolokan jartzen duen tentsio bat edo beste. Egun batean, beltzek, beste batean homosexualek, biharamunean emakumezkoek, gizakien mailara igotzeko ahalegina egin zuten. Zaputza pasatu arte, behintzat, utzi egin beharko zitzaien parekidetasunaren oasian atsedeen hartzen, eta sakeatzera goazen etxeko zakurzaratatsuari nola, txuleta puska ederra eman zitzaien, zer karraskatua izan zezaten. Lapurreta egin bitartean iraungo zuen oturuntzak, oasiaren ilusioak. Gauzak bere onera (bere txarrera) itzuli bezain pronto, munduaren mekanikak puntuan segi zezan piezak berregokitu beharko ziren, eta emakumeei, homosexualei zein beltzei *biktima* papera jokatzeko lizentzia eman zitzaien. *Baztertua* izatea baino hobea zen, nolanahi ere. Horrela, oreka berri bat ezarri zen, aurrekoaren aldaera sotil bat: aurrerantzean, zapalduerari, kexatzeko baimena emango zitzaien, baldintza batekin: biktima papera onartu behar zuten eta inolaz ere ez ziren ahaleginduko ez zegokien beste paper bat jokatzeko. Horrela, aulki bat erreserbatzen zaie, zerrendetan portzentaje bat eta gobernuetan batzordetxo bat. Ordenan integratu nahi izango dira, ordena irauli behar ez izateko.

Horregatik, jende horrek, liburu bat idazten duenean, ez du inoiz literatura egiten, bazterreko zerbait baizik, osotasuna erdiesteagatik borrokan ari den zerbait, betiere. Etiketek horretarako balio dute: «Zu ez zara gutarra, baina zatoz, atera gaitzazu gure errutinatik, liberti gaitzazu pixka batean, gonbidatua zaude!».

Emakumezko baten literatur lanetan emakumezkoak direnean protagonista, *emakume literatura* egiten du. Gizonezko baten obra literarioan, gizonezkoak direnean protagonista, *literatura* da. Ala, beste hau da ekuazioa? Emakumezko batek idazten duenean *emakume literatura* egiten du. Gizonezko batek idazten duenean *literatura* egiten du. Coetzee, Elizabeth Costelloren ahotik hitz eginagatik, ez du emakume literatura egiten, Nobel saria merezi duen literatura baizik. Garrantzitsua da ñabardura, nire ustez.

Tiroa kontzertuaren erdian lanean, eleberrietan politikaz aritzeari buruz hitz egiten du Belen Gopeguik. Ohi duen originaltasunez, literatura eta iraultza binomioaren harreman gatazkatsua aztertzen du, eleberrietan politikaz jarduteko dagoen debeku eta autodebekuaren jatorria bilatuz eta aurkituz, gainera. «Zenbaitetan galdetzen diot neure buruari zer gertatuko ote litzatekeen eleberrigile iraultzaileek agertu izan balute eleberrigile arruntek, iraultzaileak ez diren eleberri-

gileek, eleberrigile kontserbadoreek politikaz ari-
tzean duten jokabide bera». Erantzunekin batera
galderak plazaratzen ditu Gopeguik, irakurlea be-
ra, erantzunak ematera ez ezik, galderak egitera
ere gonbidatuz, dialogoaren ohitura zaharra be-
rreskuratuz: ezkertiar batek literatura egiten
duenean, zergatik egiten du literatura politikoa?
Pertsonaiak ezkertiarak direlako ala idazlea ez-
kertiarra delako? Pertsonaiak ezarritako ordena
politiko baten kontrako borrokan ari direlako ala
idazlearen izena euskal presoen eskubideen
errespetua eskatzen duen agiri bati atxikita argi-
taratu delako?

Erdigunea

1993an, Iñaki Aldekoa Beitiak *Antología de la poe-
sía vasca. Euskal Poesiaren antologia* liburua eman
zuen argitara Madrilgo Visor argitaletxean. Bertan,
Jon Mirande, Gabriel Aresti, Mikel Lasa, Juan Ma-
ri Lekuona, Ibon Sarasola, Xabier Montoia, Iñigo
Aranbarri, Xabier Lete, Koldo Izagirre eta Joseba
Sarrionandiaren poemez gain, idazle horietariko
bakoitza euskal poesiaren tradizioan kokatu, eta
munduko korronte poetikoekin ere lotzen duen
hitzaurrea aurki daiteke, Aldekoarena berarena.
Lehen lerrotik antzematen da poesiaren maitale
eta ezagule handi batek egina dela hitzaurrea,

baina orrialdeak pasatu, eta ordura arteko sentiberatasuna bat-batean desagertzen da: Koldo Izagirrerena eta Joseba Sarrionandiarena lana, «poesia militantea» izenburupean biltzen ditu hitzaurregileak, eta Omar Nabarroren eta Joxe Austin Arrietaren ahotsak «konprometitu» izenondoari lotuak aurkezten dizkigu. Ezaguna da Sarrionandiak ETAko kide izanda espetxetik ihes egin zuela, eta Joxe Austin Arrieta Herri Batasunako mahai-kide izan zela, baina, orrialde batzuk atzerago egin eta Xabier Leteren poesiari «intimista» eta «esperientzia pertsonaletik eratorritako freskuraz josia» iritzi dio Aldekoak, nahiz eta oiartzuarak, Gipuzkoako Aldundiko Kultura Saitetik jasoa zuen jorjala aurreko hamarkadan.

Arazoa, etiketa, «utopia»ren alde, aldatu nahia-
ren alde, borrokaren alde idaztea baita. Utopia-
ren kontra, kontserbazioaren eta etsipenaren al-
de idaztea, aldiz, intimista eta freskoa da, edo
kasurik txarrean, neutrala:

HERIOTZA UTOPI IZENDATU DUTENEI

Zergaitik oraindik ere
itxaropenaz mintza?
Zergatik eta zertarako
solaz zaharkituak berriztatu?
Hain azkar ahaztu ote zaizkigu
erenegun guztietako
eraiketen ohiartzunak?

Gure denbora etsipenarena da,
lagunok,
eta trolebus zikinetan biajatzten dugu
suburbioetako kanposantuetara.

Eta utopiaren etzidamuek
flajelazio berri bat dakarte
baikortasunaren muin-muinean
ukazio latzagoen munstroak ezarriz.

Gure aroa
telefono meatxugarriena
besterik ez baita,
susmoa izenperazi nahiko liguketen
paranoiko madarikatuen.

Zergaitik, beraz, itxaropenaz mintza?
Zergatik eta zertarako
bidegurutze bakoitzean
heriotza giraldez apaindu?

Bakarrik eta berez hilko gera
garaia etortzean,
ez bitzate alferrik beren buruak
funerarietako arduradun izendatu,,
kanposantu gehiegi baitago suburbioetan,
lagunok,
historiaren bidetxigorrak hilobiz ornitzen ibiltzeko.

Xabier Leteren «Heriotza utopi izendatu
dutenei» poema Joseba Sarrionandiaren «Li-

teratura eta iraultza» poema baino apolitikoagoa
al da?

LITERATURA ETA IRAULTZA

Angel Martinez komisarioak bere errebolberraren
kainoia
detenitu biluziaren uzkira sartu eta mirila zikindua,
odoldua, patetikoa ateratzen duenean
zer axola zaio mutil torturatuari poeta
um fingidor den?

G.K. Chestertonek La Salve bisitatu ote du
inoiz?

Intxaurrendoko kalabojoetan nork ezagutzen du
Hermann Broch?

Zelan adieraziko du gero mutil torturatuak

epailearen aurrera suntsiturik iristean
objective correlative kontzeptuaren esanahi
zehatza?

Zer da Molly Bloomentzat Carabanchelgo egunsenti
jostorratzez betea?

Nor da Michel Foucault zigor zeldetan hamar hilabetez
higatzen denarentzat?

Bost minutuko bisita bat? Enkontru lirikoa?

Euskal presoek

Jean Duvoisinin Biblia estudiatu behar dute
beren gutun debekatuetan

hatxeak eta komak leku egokian jartzeko?

Zein da literaturarentzat

errebeldiaren, iraultzaren, abenturaren

balio etiko ahortezina?
Zer izkiriaturen da *Voprosi Literaturi* edo *Tel Quel*
aldizkarien ertzean
euskal presoen gose greba amaigabeez?
Zer axola zaio konpromezua
polizien tiro artetik —erreboluzioaren bandera lez
ezkutarik gabe— ihes doan mutilari...

Garaitsu hartan, 1992an, eman zuen argitara Letek *Biziaren ikurrak* poema liburua. Urtebete geroago egindako kritikan, honela dio Felipe Juaristik: «Iraganarekiko begirada malenkoniaz jantzirik dago; eta orainarekikoa estoikoa da, gehienetan. Baina ez du Xabier Letek gizakia ahazten, bizi den gizartearekiko kezkei ez die muzin egiten. Bere ahotsa altxatzen du indarkeriaren aurrean, odol-isurtzearen aurrean. Baina ez da profetaren hitza, bere bidetik joan nahian dabilenarena baizik». Sarrionandiak eta Letek, bi poetek salatzen dute indarkeria. Bata politikoa da eta bestea intimista. Bata ezkertiarra da eta bestea gizartearekiko kezkez arduratzen den norbait. Bata militantea da eta bestea bere bidetik joan nahian dabilena.

Halitosia bezalakoa baita ideologia: hurkoarena bakarrik antzematen da¹. Ezkertiar kiratsa baizik ez da antzematen, kanonikoa freskagarria da.

1. Eagleton, Terry: *Después de la teoría*, Debate, Madril, 1995.

Arrazoa edo erraia

Bitxia da ikustea zer den kanonarentzat *politiko*, *ideologiko* edo *militante* izatea. Joxe Austin Arrietak *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* idatzi zuenetik, ugaltu egin dira Espainiako Gerra Zibilaz arduratzen diren liburuak: Joan Mari Irigoienek *Poliedroaren hostoak*, Koldo Izagirrereren *Euzkadi merezi zuten*, Inazio Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan*, Luis Mari Mujikaren *Loitzu herrian udapartean*, Ramon Saizarbitoriaren *Bihotz bi. Gerrako kronikak eta Gorde nazazu lurpean*, Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da*, Edorta Jimenezek *Kilkerren hotsak*, Uxue Alberdiren *Aulki jokoak*, Jose Inazio Basterretxearen *Azken tranbiaren itzala* eta *Mandatariaren gerra* edota Jokin Muñozek *Antzararen bidea* dira, besteak beste, pro-san idatzitako adibideetako batzuk. Espainiako Gerra Zibilaren horroreak bistaratzea, aldiz, politikoki zuzena, neutrala, legala bide da; izen bat ere badaukala uste dut: «oroimen historikoaz arduratzea». Gerra hori jorratzen duten liburuak *ideologizatu* edo *politiko* izatetik libre gelditzen dira, baita liburu berean gerra hori gaur egungo gatazkarekin nahastuta azaltzen den liburuetan ere.

Nola ulertu bestela Javier Rojo poeta eta literatura kritikariak idatzitakoa Jokin Muñozek *Antza-*

raren bideaz? «Nobela honekin azken urte hauetako gai interesgarri eta batzuetan polemiko batekin bat egiten jakin du idazleak, besteak beste, oroimen historikoaz ari baita». Besteak beste? Badirudi Rojok ez duela irakurri nobelaren erdia, lehergailu bat jartzekotan zebilela hiltzen den ETAko militantearen amaren parte, alegia. Bista arazo berbera antzematen zaio Rojori Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pausoren* kritika egiterakoan: «Errealitatea eta fikzioa nahasiz belaunaldi baten kronika egiten digu, desilusiora daraman bidaian. Oroimena du horretarako lagun». Antzera mintzatzen da Felipe Juaristi: «Ramon Saizarbitoriaren liburu hau oroimenaren inguruan eraikita dago. Protagonista eta idazlea, biak batera, atzean gelditutako oroitzapenen bila dabilta, baina haxe galdera: zer dago horien atzean ezkutaturik? Seguruaski, oroimen herri bat, nork aurkituko zain». *Oroimena* da gakoa. Gogora dezagun, eleberriak bi plano nagusi dituela: plano batean Angel Otaegiren fusilamendua kontatzen da, eta bestean, ETAko militante batekin harremanetan sartzen den hiztegitik baten nora ez existentziala. Hala ere, orainak ez omen presentziarik eleberrian.

Oroimena iraganarekin lotzen da, garunarekin, gertakari objektiboak norberaren subjektibotasunaren iragazkitik pasatzearekin. ETAZ ari direnean ere, Muñoz eta Saizarbitoria *oroitzen*

ari baitira, beraz, iragana egunera ekartzen, arrazoia erabilia, betiere. Nahiz eta badakigun zein kapritxosoa den memoria, zein intimo eta pertsonala, zein esperientzia pertsonaletatik abiatua... (ez justizia edo utopia bezala! horiek bai, horiek politikoak dira, eta erraietan dute habia, gorputzeko humoreetan).

Bestelakoa da Javier Rojo eta Felipe Juaristiren zorroztasuna Koldo Izagirre epaitzeko orduan *Sua nahi, Mr. Churchill?*-ez arduratzen direnean. Rojok: «Eta gaien aldetik, behin eta berriro bueltatzen da bere ohiko mamuetara: gerra zibila eta frankismoa. Iraultza estetikoak eta iraultza politikoak bat egin nahi dute Izagirrereren literaturan, xx. mendeko zoko hamarkadan bezala» eta *Vladimirez*: «Nor arraio da Vladimir? (...) agian testuak gordetzen duena idazlearen mamuekin antzaldatutako panfleto bitxi bat besterik ez dela izan ikusi ahal izango dugu». Felipe Juaristik, honako hau idatzi zuen *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* eleberriari buruz: «Nobela polita da, baina Koldo Izagirrereren gehienek bezala, mezua du barnean gorderik. Nobela politikoa da, nobela euskalduna, hemengo nobela, euskalduntasunaren eta aberriaren ideia dakarrena» eta antzeko zerbait *Nik ere Germinal!* egin gura nuen *aldarriri* buruz: «Eta liburu mezudunak gustuko dituen irakurlea ere pozik geratuko da Koldo Izagirrereren hau itxi ondoren».

Bigarren Karlistaldi osteko garaiaz, Gerra Zibilaz edo Frankismoaz idatzi, Izagirrerri ez baitzaio memoriarik, iraganik, intimotasunik aitortzen. Bere kasuan, mamuak eta mezuak dira nagusi; paranoiak eta politika; erraiak eta panfletoak. Horregatik, kritikarien ustez, horrelako liburuak gustuko dituen irakurleak (irakurle oligofrenikoa, trauskila) soilik du estimatuko Izagirrerren literatura. Beste irakurleei (irakurle libreak, kosmopolitak) panfleto eta mezuetan sinesten ez duten horiei, eskuetatik eroriko zaizkie, sinestezin izateagatik. Finean, sinesgarritasuna baita arazoa.

Egiaren aurpegia

Horixe da fikzioaren magia. Eta trukuak iraun bitartean ikusleak sinetsi egiten du magia existitzen dela, eta sorginduta behatuko dio magoaren esku-mugimendu orori. Magoaren eta ikuslearen artean egindako ituna da: «Nik egia balitz bezala biziko dut kartaren desagertzea, baldin eta karta egiaz desagertu dela badirudi». Eta guztiok dakigu egiak zein lurralde ilun eta malkartsua hartzen duen errealitate deituriko dimentsio horretan, bere jabetzagatik zenbat jende borrokatzen eta hiltzen den. Bada, errealitatean egiak duen lekua betetzen du fikzioan egiantzak.

«Diskurtso menperatzailearen jabeek egiantza bahitu dute» dio Gopeguik eta esku irmoz aletzen ditu eleberri kanonikoaren (kapitalistaren, neutroaren, erdigunekoaren) sinesgarritasun edo egiantzaren baldintzak. Zer ezaugarrik egiten du te posible eleberri kanonikoaren magia-trukua sinesgarri gertatzea? Nola egin behar du idazlemagoak politikaz idatzita sinesgarri gertatzeko? Nola eraiki ezkerreko pertsonaia zintzo bat ituna urratu eta magoa barregarri utzi gabe?

Egiantzaren parametroetan bada tokirik (eta zabala) ezkerreko pertsonaia ezkorrentzat, eta zilegi da horiei buruz idaztea iraintzeko edo irrigarri uzteko bada. Ezkerreko pertsonaia baikorra sortzea bururatzen zaion idazle zuhurgabeari, ordea, karta mugitzen duen haria seinalatuko diote, hauts magikoak ideologikoak direla leporatuz. Gurean, koska pare bat gehiago bihurritzen da arazoa: ez da bakarrik literatura ezkerretik egitea zaila dela, baizik eta hemen, gauza batzuk, ideia batzuk, ezin direla esan. Ez zailtasunagatik, baizik eta legez zigortuta egoteagatik. Eta esan gabe, adierazi gabe, eztabaidatu gabe, kontatu gabe geratzen diren gaiek, arazoez, iritziek lekua galtzen dute ez bakarrik errealitatean, ez bakarrik talde-irudimenean, baita errealitatearen eta irudimenaren arteko koktela den fikzioan ere. Eta esatea lortzen denean, zer hizkuntzetan egi-

ten den eta zer hiztegi erabiltzen den ideiak, pertsonak eta ekintzak izendatzeko orduan, egiantzaren zaindariak atezuan jarriko dira, egile hori eta obra hori gezurraren lurraldetik irten ez daitezuten. Hizkuntza, bere zentzu zabalean hartuta, bahiketaren parte baita.

Ezkerreko eta sinesgarri

Euskal gatazka deiturikoa maiz eraman da fikzioaren erresumara. Ezkerreko pertsonaiak, sinesgarri izateko, ETAko behar du izan. Ezkerreko pertsonaiak ez dira ez kirolari, ez filosofo, ez eskultore, ez maisu, ez postari, ez kamioilari, ez taxidermista, ez ikasle, ez langabe, ezta politikari ere. Ezkerreko pertsonaiak sinesgarri izateko beste beharreko lehen baldintza etakide izatea da, eta ez edonolakoa, gainera.

1983an martxan jarri zen arren, atzo goizean idatzia dirudi ZEN planak. Kulturaren eta artearen munduko jendeari zuzendutako atalean, ETAko kideen karakterizazioa eta profil psikologikoa ontzeko ideiak ematen ditu: «*Provocar más desprecio que miedo*» edo «*Dar información sobre conflictos entre los terroristas, sus ideologías extrañas, sus negocios, sus costumbres criticables, etc. Basta que la información sea creíble para que pueda ser explotada*» edo beste hau «*Difu-*

sión de noticias falsas, empleo de una semántica que no favorezca al grupo terrorista». Bitxia da zinemagile aske, mundutar eta independenteek ETari buruz egindako lanak militar batek diseinatutako estrategiarekin hain ongi ezkontzea. Urteen poderioz, guztien artean, modu sublimerki koherentean bilbatzen joan den irudia eraiki dute: etakidea nortasun arazoak dituen norbait da, maitale hoberik ez duelako aberria izeneko lur zatia zoroki besarkatzen duen zonbi mitomanoa, inoiz existitu ez den paradisu menditsu eta lanbrotsu batekin egiten duena amets, zeinaren gailurrean, ikurrina handi bat kulunkatzen den. Identitate bat eskuratzearren pairatutako burmuin garbiketen ondorioz, etakide guztiek estilismo berbera partekatzen dute, eta lobotomiak gaitasun estetikoaren arlo guztiei kalte egin dienez, RRV edota kantu herrikoiak soilik dituzte estimatzen. Etakideak, existitzen ez den hori ezin lor-tuak sortutako frustrazioa alkohola edaten estali nahi du, eta horretarako, armak, lehergailuak eta koktelak gordetzen diren taberna ilunetan gotortzen da. Bertan, bere tribukoekin batzen da: hitz gutxiko jendea, kontsignak erabilia komunikatzen dena. Izan ere, zertarako gehiago hitz egin? Ez daukaten zer pentsamendu edo zer sentimendu adierazteko? Hartutako bidez damutzen direnean, orduan bai, autismoaren eskola apurtu

eta arrazoitzen eta sentitzen hasiko dira, mundua bost zentzumenen bidez antzematen, normaltzen. Horretaz gain, etakidea gizonezkoa da, eta ez nolanhikoa, emakumezkoak zapaldu eta homosexualak baztertzen plazer hartzen duen *machoa* baizik. Etakidea emakumezkoa den kasu bakane-tan, frigidoa edo sexu tsunamia, edozein mutur-rek, edozein bazterrek balio du, normaltasunetik edota erdigunetik urrun dagoen bitartean². Zorixarrekoa estereotipo horrekin ezkontzen ez den pertsonaia! Bereak egin du. Politikoa, ideologizatu-a, mezuduna, militantea... ugariak dira jar da-kizkiokeen mozalak. Irakurlearen begietara si-nesgarri ez gertatzea baita pertsonaia bati gerta dakioken tragediarik handiena, eta atzetik, fil-ma, dokumentala, liburua osorik amilduko da, baita egilea bera ere... Egiaren jabe izateak adina balio baitu egiantzaren jabe izateak. Edo ZEN pla-nak zioen moduak, egiak adina balio du gezu-rrak sinesgarri gertatzea.

«Kontuan hartu behar dugu batetik kontzer-tua norena den eta, bestetik, zer motatako musi-ka ari diren jotzen», gaztigitzen gaitu Gopeguik.

2. *A ciegas, Clandestinos, Días contados, La casa de mi padre, El lobo, La muerte de Mikel, Todos estamos invitados, El viaje de Arian, Yoyes* eta *Matar al rey* filmak aztertuta eratorritako es-tereotipoa.

Eta ñabardura gehienek bezala, osotasunak adina balio dauka. Arazoa ez baita politikaz hitz egitea, ezta kontzertuaren erdian tiroa jotzea ere. Tiroa nork jo eta zer norabidetan jaurti, horrek du benetan inporta. Bazterrak eta erdigunea:

«Gaur egun sinesgaitza iruditzen hasia zaiguna da erreakzionatzeko gaitasunik ez duten pertsonen beteriko mundu galdua. Eta oraindik sinesgaitza ez bada, ni eta nire moduan beste asko saiatuko gara mundua sinesgaitz bihurtzen».

Ezer ez baita benetan erdiguneko. Erdiguneak bazterrak behar dituelako erdigune izateko³. Egiak gezurra eta sinesgarritasunak sinesgaiztasuna.

EIDER RODRIGUEZ

3. Spivak, Gayatri: *The Post-Colonial Critic: Interviews, Strategies, Dialogues*, Routledge, New York, 1988.